

Azala ilunagoa – AFRIKA (“Entzun” albuma 2004)

Ikusten duzuenez agerian pertsona normal bat naiz.

pixkat txoratuta esan behar, modu berezi batean.

akatsak bai ditudala, etxe guztietan bezala,

itxura serioa baina dakart, bihotz haundi bat nire gorputz beltzean.

ez naiz bestean bizitzen zalea, horregatik ez dut ulertzen zer daukadan interesgarria nitaz horrenbeste susmo dira entzuten ezta zer dagoen nire aurpegian, jentia arraro begiratzeko hainbat gauza ez ditugu ulertzen, baina segitu behar dugu

Etzazu begiratu atzetik extralurtarra izango banintz bezala azala ilunagoa daukat bai hori da ezberdintasun bakarra;

zuk bezala negar egiten dot zu bezalako animalia naz zuk bezala dut sentitzen(bis)

Ez naz etorri honera zu izorratzeko gauza inportanteagoak ditut nire buruan egiteko.. beltza, lodia , homosexuala edo gorra guztiontzat eginak daude oportunitateak...

Hain handia den mundu batean gutxi batzuek jarraitzen dute diferentziak markatzen, ezberdintasunak ezartzen. horrek inkonformismoa sortaraziko du zapaldutakoen ordua ailegatzear dago

Etzazu begiratu atzetik...

LAN-PROPOSAMENA:

- 1- ABESTIA ENTZUN
- 2- POST-IT BATEAN BAKOITZARENTZAT DEIGARRI DIREN HITZAK EDO ESALDIAK IDATZI.
- 3- BATERATZE-LANA: KIDE BAKOITZAK ZER ETA ZERGATIK IDATZI DUEN ADIERAZI.
- 4- ONDORIOAK.